



ORDEZKATZE KONTRATUEN BANAKETAN ORDEZKOEI IRUZURRA!

Gaiak ordezkoen kudeaketa zerrendetarako duen eraginaren garrantziaz jabetuta, LABek, iruzurra gauzatu zenetik, bere alternatiba plazaratu du afiliatuei bidalitako euskarri ezberdinetan. Alternatiba ordezkatzeko kontratuak zerbitzu eginkizun deialdi berezien bidez banatzea izango litzateke. Deialdiak kontratuak sortuko liratekeen unean egingo ziren eta bertan irakasle ordezkoko guztiok izango genuke parte hartzeko aukera, lanean egon ala ez. Aipatu deialdian hautagaiaren izena aukeratzeko garaian erabili beharreko aldagai bakarrak ordezkoen zerrendetako baremoak beharko luke eta ez besterik. Gauzak horrela, parte hartzaile guztien artean puntu gehien izango zituena izango zen aukeratua gainontzeko ordezkoko guztien eskubideak bermatuta geldituko zirelarik. Aukeratutako irakasle ordezkokoak lanik izango balu, hau utzi eta ordezkatzeko kontratua hartuko luke, askatutako lanpostua ordezkapen soil bezala telefonoz esleituz. Ikusten den legez ordezkatzeko kontratuak banatzeko erarik justu eta demokratikoa izango litzateke ikasturte hasierako esleipenetan esleitzea lortu ezean.

Telefono bidezko banaketari LABek ezetz esan zuen sindikatu bakarra izan zen. Prozedura hori ezin zela erabili salatu genuen batzar horretan baina bakarrik utzi gintuzten gainontzeko sindikatu guztiok, "agian ez da erarik egokiena baina aurrera" eta antzeko perlak entzun genituen. Irakasle kidego baten eskubideak beste baten, ordezkoen, eskubideen gainetik jarri zituzten inolako lotsarik gabe eta orain, errugabe gisa aurkezten dizkigute beraien buruak. Irakasle ordezkoen eskubideak zanpatu zituzten inolako eztabaida-proposamen faserik egin gabe, ordezkoen eskubideak zanpatu eta kितto! izan zen egin zutena.

Arazoa larria da. Prozedura honek sortuko dituen kalteak ugariak dira. Lan-legepekoek soilik dutela erretiro sistema hau eskuratzea, hauek irakaskuntzan gutxiengo bat direla eta honela sortuko den kaltea mugatua izango dela argudiatzen dutenek, jada, beraien buruak erruduntzat jotzen dituzte afera honetan. Gainera zer esan nahi da "gutxiengo" hitzak? EAE mailan 50, 100, 150, 200, ... kopuru hauek txikiak al dira? Horrenbeste argudio emateko garaian beraien jarrera koldarra agerian utzi dute eta irakasle ordezkook ezin diegu egindakoa barkatu!

Ordezkatze kontratuen banaketaren gaiak zailtasun handiak zituen, onartzen dugu, baina eztabaida-proposamen fase lanketarik gauzatu gabe, errazena Administrazioari eta Gizarte Asegurantzari erru guztiak leporatzea da, nor bere ardurak kontutan izan gabe.

LABek ez du amore emango irakasle ordezkoen eskubide zanpaketa honetan eta datozen egunotan bideratuko diren ekimenetan parte hartzera deitzen dizue!

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org